

Juliaren ametsa

Leire Erbiti Goienetxe

Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak 2. saria

Leitzako Erleta IP

Julia Ukrainiako neskatxa txiki bat da. Guraso gazteak eta bost ahizpa ditu. Bere gurasoek asko maite dute baina dirurik ez dutenez, bera, umezurztegi batean bizi da. Opor egunak izaten dira Juliaren egunik onenak. Familia batek hartzen baitu Nafarroako herri txiki batean. Eguberriak, aste-santua eta uda igarotzen ditu ahizpa, bi anai eta guraso berriekin.

Gaur umezurztegiko ohe gainean dago etzanda, oso nekaturik dago maletak prestatzen pasa duelako arratsalde osoa. Irrikan dago hurrengo eguna iristeko, ezin du gehiago itxaron. Bat-batean, kolpe batez ireki da gelako atea. Bere lagun guztiak jolastordutik itzuli dira kamisoi urdinxkekin, atzetik irakaslea dator bere mutur luze zorrotzarekin. Julia gordeka kamisoi jartzen saiatu da, bestela ezingo baitu bihar Nafarroara joan zigortuta egongo baita, baina, Maria Agustina andereñoaren atzetik mutiko bat azaldu da. Bere irakasleak buelta eman eta izugarrizko oihua bota dio nesken logelan sartzeagatik. Andereñoa oihuka ari zen bitartean, Juliak kamisoi jartzeko aprobetxatu du. Irakasleak ez dio harrapatu. Neskatxa ohean sartu da eta begiak itxi ditu...

Goizeko sei eta erdietan, egurrezko ate zabala ireki da. Egun berezia da gaur Juliarentzat. Azkar jantzi eta gosalduek ondoren, maletak hartu eta kaiera atera da segituan. Oraindik ez da iritsi trena, zazpiak hogeit gutxi dira. Julia harri batera igo, eta ordularia berrogei minutu aurreratu du. Andereñoa leihotik begira zegoen. Kopeta zorrotza jarri du, ateratzen hasi da, baina, bi aldiz pentsatu ondoren, irritxo bat atera zaio eta utzi egin du.

Julia banku urdinean eseri da. Trenak pasatzen diren aldiro zutik jartzen da irribarre handi batekin.

Bankuan etzan eta lo hartu du. Bat-batean, trenaren soinua entzun da eta lagun guztiak korrika ateratzen dira irakasleen aurretik. Julia kolpe batean esnatu eta lehenengo jarri da ateko ilaran, treneko ateak ireki, eta tren geltokia hutsik geratu da. Leihotik ikusten diren paisaiak ikusten joan da neskatxa.

Hegazkina hartu behar dute. Barruko dendetan, gailetak eta oparitxo bat erosi du. Hegazkineko leiho ondoan jarri da, baina ez da inor gehiago bere ondoan tokatu. Lur hartzean, sabelean tximeletak sentitu ditu, hegazkinetik jaitsi eta korrika eta maletak ahaztuta amatxoren bila joan da. Zuzendaria atzetik dator maletekin Julia ezin segituz. Autotik aterata han daude denak, irribarretsu Juliari itxaroten. Korrika joan da ama atzean utzita eta denen artean besarkada handi bat eman diote. Anai-arreba guztiak jolasean dihardute bidaia guztia.

Etxera iritsi eta Mainer (ahizpa) eta Julia beraien gelara joan dira ohea egin eta jolastera. Juliak hegazkinera sartu baino lehen erositako oparitxoa eman dio Mainerri. Mainer harriturik geratu da. Eguraldi ona egiten zuenez, igerilekura joan dira. Juliari asko gustatzen zaio ura, baina, urtean zehar ezin izaten da igerilekura joan. Umezurztegikoek ez baitiote uzten. Baina orain, Mainerrekin karrerak egiten ditu:

-Mainer! Ezetz luze batean fin irabazi! - Juliak.

-Hori ikusi beharra dago! - Mainerrek pozik.

-Goazen hastera. Bat! Bi! Eta hiru! - Juliak gogoz.

Horrela ibili dira goiz guztian. Azkenean, nekaturik, atera eta eskuoihala hartu dute biek. Beste bi anaiak etorri zaizkie:

-Nahi al duzue igerilekuan bazkaldu? - Unaiak.

-Lehengusinak helduko dira ordu erdira - pozik Jonek.

-Bai! Hori da eta! - bi neskak.

Denak barrez hasi dira. Bitartean, gordeketan ibili dira, ordu erdia azkar pasa dadin.

Azkenean, lehengusinak etorri dira. Haiei ere besarkada handi bat eman die Juliak. Arratsaldean denak batera ibili dira jolasean. Oso ondo pasatu dute elkarrekin. Baina, orduak joan, orduak etorri etxera joateko ordua iritsi da. Ez du inork etxera joan nahi eta haur guztiek igerilekuko jatetxean afaltzeko erregutzen dute. Azkenean gurasoak ere animatu dira. Gaueko hamaiketan, etxera joaten abiatu dira. Juliak egun gogorra izan du eta bidean lo hartzen du. Ohean sartu eta txutxu-mutxuka aritu dira Mainer eta Julia haien gelan. Mainer oso pozik zegoen eta hitz eta pitz segitzen zuen:

-Julia bihar joango al gara berriro igerilekura? - Mainerrek.

-ZZZZZZZZ ZZZZZZZ ZZZZZZZZ ZZZZZZZZ - Julia gizagaixoa nekaturik.

-je je je je - Mainer isilpean.

Egunak joan, egunak etorri, Juliaren oporretako azken gaua iritsi da. Familia agurtu eta maletak prestatu ondoren ohera joan da triste.

Julia bat-batean umezurztegiko ate zabalarekin esnatu da hango ohean. Aldeetara begiratu, begiak igurtzi eta zimikoa egin du besoan. Umezurztegian dago oraindik. Negarrari eman dio, irakaslea hurbildu zaio:

-Zer duzu Julia? - irakasleak.

-Amets bat eduki dut - Juliak begiak igurtziz.

-Kontatu nahi duzu? - irakaslea Juliaren ohean eserita.

-Ez. Baina hegazkina berriz ordaindu behar al dut? - larriturik neskak.

-Zertaz ari zara, behin ordaintzen da - andereak harriturik.

Juliari aurpegia alaitu zaio. Bi aldiz biziko baititu udako egun zoragarriak. Berriro edo ametsetan bezala azkar gosaldtu eta jantzi da. Bidaia ere berdintsu joan da. Hegazkinetik jaitsi maletak hartu gabe amarengana joan eta berriro etxera iritsita, igerilekura joatea proposatu du. Juliak aurtan merezi dituen bi uda zoragarri izan ditu. Ez du inoiz ahaztuko aurtengo uda bikoitza.